


azpeitian zer

125. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko otsaila



Batzuk amaitu
eta berriak hasi

Udalak hobekuntzak egingo
ditu igerilekuan eta Jose Artetxe
eta Done Jakue kaleetan

700 urte
azpeitia

zer?



2 Telefono interesgarriak

12 Motxean

3 Herritarren eskaerei erantzunez 14 Iraurgi Lantzen

4 Azpeitia ezagutzen lehiaketa 15 Udal erabakiak

9 Erreportajea 16 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Herriarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoietan eta azpeitia.net webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Irakokizuna

Eliz kalean zakarrontziak falta dira.

Erantzuna

Udalak ez du aurreikusten Eliz kalean zakarrontzirik jartzea. Izan ere, batetik, lekuri ez dago ipintzeko eta bestetik, beriz, gertu ontziak badaude; Done Jakue, Etxe Zuri eta Enparanen, besteak beste.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Azpeitiko erdigunean bizi gara eta garajea ere bertan dugu. Guk gure betebeharrak guztiak betetzen ditugu, nahiz eta dagozkigun eskubideak askotan urratuak ikusten ditugun. Bizi garen tokian bizi garelako, beronek eskaintzen dizkigun abantaila eta desabantaila guztiak onartzen ditugu. Kontua da, ordea, urtean zehar eta batetik bat festa egunetan (sansebastianak, inauteriak, santiagoak, saninazioak, Erdi Aroko azoka, santotomasak...) erdigunerako sarrerak itxita izan ohi dira. Inoiz ez gara egun hauetan erdigunerako sarrerak isteaz kexatu, ezta kexatuko ere baina bai neurri batzuk hartzeko eskatu.

Erantzuna

Enparan Dorreko zubian pibotak jartzeko asmoa du Udalak, dagoeneko eskatuta daude, eta Alde Zaharreko bizilagunei sartu eta irten ahal izateko txartelak ematea aurreikusten da. Bestalde, Soreasuko aparkalekuak laster amaituko dira eta horrekin arazoa arinduko da.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Elbarriei zuzendutako aparkalekuak zaintzea eskatzen dut. Txartela ez dutenek ez dezatela toki horietan autoa aparkatu.

Erantzuna

Udaltzaingoa abisatuta dago eta beti saiatzeko gara zaintzen. Hala ere, nahiko ondo errespetatzen dela uste dugu.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Oñatz auzotik jaisten diren bizilagunek Azpeitiko sarreraren husten dituzte euren zaborrak, Zubieta garraioak edo bidegurutzean dauden ontzietan. Ez da ulergarria une hauetan zergatik ez den jartzen edukiontzi horirik, plastikoak eta antzekoak direnak botatzeko. Birziklatzea guztion lana izango da ba? Eta baserriarrei ere lan hau erraztu egin beharko zaie.

Aitor Aldalur

Erantzuna

Dagoeneko eskatuta dago ontzi horia eta laster jarriko da.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Euskal Herria auzoko bizilagunok beste Azpeitiko bizilagun asko bezala autoen zerga ordaintzen dugu, beraz, zergatik ez dugu aparkaleku egokirik izateko eskubiderik? Orain espaloi gainean aparkatzeagatik isunak jartzen hasi dira, baina ez dira konturatzen marra oria marraztu dutenetik aparkaleku asko kendu dituztela eta ikastola garaian autobus geltokia jarri dutenetik. Ez dakit konturatu diren udaleko arduradunak, baina ikastola inguruko bizilagunak erabat ahaztuta dituzte. Krisia dela eta, dirua ateratzeko konponbidea Euskal Herriko bizilagunei isunak jartzea al da? Irtenbide bat eskatzen dut lehen bai lehen edo gure aldarria ez dadila hitz ahaztu batzuetan gelditu.

Euskal Herriko bizilaguna

Erantzuna

1.- Euskal-herria auzunea da Azpeitia osoan aparkaleku gehientxu dagoen auzoa. Metro batzuk gora-behera ez da zaila aparkalekua aurkitzea.

2.- Espaloiak oinezkoak bertatik lasai ibiltzeko dira, ez kotxeak aparkatzeko. Trafiko legeak hala dio eta guk ere hala uste dugu, lehentasuna gizakiok dugula eta ez kotxeak edo edozein motatako makinak.

3.- Isunak ipintzen direnean, ondo aparka-

tzeko lekuak badaudelako izaten da. Hone-la, lekua izan arren, kotxe batzuk espaloi edo marra orian badaude, isuna jartzen zaie.

Joxe Anjel Aristi. Udaltzaiburua.

Irakokizuna

Orain bi urte Perez Arregi plaza eraldatu zuten eta oinezkoentzat gunea handitu zuten, lehengo gaizki aparkatutako auto ilara atzean utziz. Oso ondo iruditu zitzaizdan aldaketa hau, baina arazo bat dago. Zuhaitzek itxura hobetu zuten, baina betetzeko jarri ziren enborren azalak txakurren kakaz beteta egoten dira. Uda garaian, plazako terrazak jendez gainezka egoten dira eta haurrak arbola hauen inguruan ibiltzen dira jolasean, horrek duen osasun eta higie-ne arriskuarekin. Horregatik, dekorazioan aldaketa eskatuko nuke; zuhaitzak inguratzeko txakurren presentzia ekiditeko.

Erantzuna

Arazoaz jabetuta gaude eta dagoeneko irtenbide baten bila dabil Udala, soluzio desberdinak aztertuz. Laster egingo da hobekuntza eta honen bidez, txakur kaka eta zikintzeak ekidingo dira.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.



Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskain-tzen dizu.
- Udal albisteak uneoro ezagutzeko.
- Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plaza-ratzeko.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzen.
- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak on-line erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

OINARRIAK

1. Parte hartzen dutenen adina kontutan izanik, bi mailatan banatzen da lehiaketa, hamalau urte 2010. urtean beteko dituzten bitartekoak (GAZTEAK) batetik eta adin horretatik gorakoek bestetik (HELDUAK).
2. Maila bateko eta besteko orriak banatuko dira 2010ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, eta maiatzaren hasieran, bakoitzean 20 galdera egiten direla, eta bakoitzarentzat lau erantzun ematen direla.
3. Erantzun horietako bat bakarra da zuzena eta bera aukeratu ondoren, gurutzetxo bat (X) jarri beharko da egokitzen zaion laukitxoan.
4. Galdera guztiei edo ahalik eta gehienei erantzun ondoren eta martxoaren 15a baino lehen, Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan egongo diren gutunontzietan sartuko da galdera orria.
5. Derrigorrezkoa egiten da, gutunontzian sartu aurrez, galdera orria guztiz betetzea, hau da, izen abizenak, adina, helbidea eta partaidea bizi den herriaren izena idaztea.
6. Partaide bakoitzak, galdera orri bat bakarra aurkez dezake aipaturiko hil bakoitzean.
7. Bost galdera sorta horiek osatuko dute AZPEITIA EZAGUTZEN 2010 LEHIAKETA, eta irabazletzat erantzun egoki gehienematen dituztenak hartuko dira.

8. Sariak, honako hauek izango dira aipaturiko bi maila horietan:

Helduen maila

1. Saria: Bi lagunentzat astebukaera bat Iparraldeko landa-turismo etxe batetan.
2. Saria: Bi lagunentzat astebukaera Hegoaldeko landa-turismo etxe batetan.
3. Saria: Bi lagunentzat afaria Larrañaga jatetxean.

Gazteen maila

1. Saria: Ordenagailu eramangarria.
2. Saria: Informatikako denda batean gastatzeko txartel bat
3. Saria: Kirol-denda batean gastatzeko txartel bat

9. Berdinketarik balitz, zozketa baten bidez erabakiko litezke aipaturiko sariak.
10. Udalak herriko jai nagusietan banatuko ditu sariak eta aurretik galdera guztien erantzun zuzenak ezagutaraziko dira.

OHARRA:

Lehiaketako orri hauen fotokopiak onartuko dira.



HELDUEN MAILA

1 Garai batean, bi komentu zeuden Enparantza Nagusira begira. Bat San Agustin zen, eta bestea?

- ☐ San Nicolás de Tolentino
- ☐ San Pedro de Egimendi
- ☐ Santo Domingo
- ☐ San Frantzisko

2 1809an Venezuelako Kapitan Nagusia izatera iritsi zen azpeitiar bat. Nor?

- ☐ Joan Ochoa de Ondarra
- ☐ Bizente de Enparan
- ☐ Xabier Maria Basazabal
- ☐ Joan de Alzaga

3 1977an kaleratu zen karrozaren izena Euskal Herriko mapa zen. Baina, nork egin zuen?

- ☐ Inazio Agirre
- ☐ Eli Beobide
- ☐ Andoni Albizuri Katxo
- ☐ Inazio Agirre y M^a Karmen Agirre

4 Gaur egun Izarraitz pilotalekua dagoen tokian beste pilotaleku bat zegoen. Esango al diguzu bere izena?

- ☐ Frontoi Txikia
- ☐ Izarraitz
- ☐ Zubeldia
- ☐ Vista Alegre

5 2003an Donostian ospatu zen Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketa eta azpeitiar batek irabazi zuen maratokia. Nork?

- ☐ Xabier Iturriaga
- ☐ Leandro Dominguez
- ☐ Xabier Iturralde
- ☐ Xabin Aranaga

6 Manolo Madrazo margolari azpeitiarra bere maisuaren jarraitzaile berezia izan zen. Nor zen bere maisua?

- ☐ Eloi Erentxun
- ☐ Elías Salaberria
- ☐ Ascensio Martiarena
- ☐ Jesus Olasagasti

7 Esango al diguzu zein urtetan bedeinkatu zen Matxinbenta auzoko eliza?

- ☐ 1785ean
- ☐ 1790ean
- ☐ 1795ean
- ☐ 1800ean

8 Zer lotura zuten Inazio de Ibero eta Frantzisko de Ibero maisu azpeitiarrek?

- ☐ Anaiak
- ☐ Aita-semeak
- ☐ Osaba-ilobak
- ☐ Aitona-bilobak

9 Azpeitiko Zine Klubak eskaini zuen 1976ko urriaren 1ean eskaini zuen lehen proiektzio publikoa. Zein zen filmaren izenburua?

- ☐ El juez de la horca
- ☐ Perros de paja
- ☐ Candilejas
- ☐ La casa de cristal

10 Azpeitiar batek gezigarri xarabe bat aurkeztu zuen 1900. urtean Parisen ospatutako Erakusketa Orokorrean. Nork?

- ☐ Adrian Goenaga
- ☐ Antonio Alzuru
- ☐ Ramon Nazabal
- ☐ Jose Luis Arrieta

11 Azpeitiar batek idatzia da Western Basque Festival deituriko liburua. Nork?

- ☐ Pako Aristi
- ☐ Enekoitz Esnaola
- ☐ Miel A. Elustondo
- ☐ Joxe Luis Otamendi

12 Azpeitiko Inauterietako abesti batek honela dio: Ipurtzulua itxita hamar egunian, zezenak izan ziran... Nola jarraitzen du?

- ☐ Lehertu zenian
- ☐ Iriki zenian
- ☐ Haserretu zenian
- ☐ Berotu zenian

13 Sevillan bizi zen azpeitiar batek bere ondasunen zati handi bat eskaini zuen 1578an Azpeitian agustindar komentu bat egiteko. Nork?

- ☐ Andres de Leturiondo
- ☐ Sebastian de Landeta
- ☐ Frantzisko de Lapazaran
- ☐ Pedro de Arriaran

14 2004an Donostia Hiriko Kutxa Literatur saria irabazi zuen azpeitiar emakume batek Clitemnestraren itzulera antzerki obrarekin. Nork?

- ☐ Mariana Arruti
- ☐ Alaitz Olaizola
- ☐ Jesusa Eceizabarrena
- ☐ Nati Motillo

15 Azpeitiar margolari bat Venezuelan eman zen ezagutzera batez ere eta bere lanak JOXE izenarekin sinatzen zituen. Nor zen?

- ☐ Jose Antonio Zelaia
- ☐ Jose Egibar Aristi Sanjuandegi
- ☐ Jose Aniceto Amenabar Orbe
- ☐ Jose Luis Aranburu

16 Salesiar ordenakoa eta musikaria zen Juan Manuel Beobide azpeitiarra. Baina zein zen bere izenordea?

- ☐ Azpeitiko Txikia
- ☐ Melodias
- ☐ Sinfónico
- ☐ Gozoki

17 Aiako Joxe Tejeria Mugaz urkatu zuten Azpeitian, bere aita hil zuelako. Zein urtetan?

- ☐ 1887an
- ☐ 1889an
- ☐ 1900ean
- ☐ 1903an

18 Manifestaldi jendetsu bat egin zen Azpeitian 1988ko otsailaren 14an. Zer eskatzen zen?

- ☐ Urola tren
- ☐ Nuarbeko urtegia
- ☐ Agintarien dimisioa
- ☐ Zabortege berria

19 Argentinako Buenos Aires hiriko Victoria antzokian, Artzai mutillak opera estreinatu zen 1900ean. Pedro Mari Otañoren hitzak zituen eta azpeitiar baten musika. Norena?

- ☐ Joxe Jabier de Olazabal
- ☐ Domingo Lopez de Landeta
- ☐ Felipe de Uzkudun
- ☐ Bizente de Altuna

20 Gaurko aurrerapenik gabe, herriko suhiltzaile bakoitzaren etxean txirrina jartzea erabaki zen deialdiak egiteko. Zein urtetan?

- ☐ 1887an
- ☐ 1889an
- ☐ 1900ean
- ☐ 1903an

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da martxoaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.





azpeitia
ezagutzen
lehiaketa



GAZTEEN MAILA

1 Zein urtetan ospatu ziren lehen aldiz Azpeitian, Euskal Antzerki Topaketak?

- ☐ 1980an
- ☐ 1983an
- ☐ 1985ean
- ☐ 1986an

2 Non dago kokatuta Azketa izeneko iturria?

- ☐ Arauntza
- ☐ Izarraitz
- ☐ Oñatz
- ☐ Txalintxo

3 Manolo Madrazo artista azpeitiarrak zer landu zuen?

- ☐ Eskultura
- ☐ Musika
- ☐ Pintura
- ☐ Taila

4 Lau filma hauetako bat, Azpeitiko Zine Klubak egina da. Zein?

- ☐ Kiniela
- ☐ Egur ikatza
- ☐ Beranduegi
- ☐ Equinoxe

5 Azpeitiko parrokiako organoak aldaketa handiak ezagutu ditu urteetan zehar. Baina nork egina da?

- ☐ Akilino de Amezua
- ☐ Juan de Amezua
- ☐ Diego de Amezua
- ☐ Antonio de Balanzategi

6 Uztarria Koordinadorak argitaratutako Patxi Altuna zenaren biografia emakume batek idatzia da. Nork?

- ☐ Maite Sarasua
- ☐ Josune Etxeberria
- ☐ Alaitz Olaizola
- ☐ Nerea Uranga

7 Zumaiako parrokiako erretaula nagusia azpeitiar batek egina da. Nork?

- ☐ Joan de Apaeztegi
- ☐ Joan de Antxieta
- ☐ Martin de Olaizola
- ☐ Domingo de Rezabal

8 Azpeitia eta Zestoa bitartean gertatutako auto istripu batean hil zen Lasao, Lanbritx deituriko motorista. Nor zen bera?

- ☐ Joxe Luis Eizmendi
- ☐ Joxe Mari Sagardogi
- ☐ Bernardo Aizpuru
- ☐ Tomas Joxe Arrieta

9 Iraurgi Saskibaloi taldearen 25. urtemuga ospatzeko Tau-Baskonia taldea neurtu zen Azpeitian beste talde ezagun batekin. Zein talde?

- ☐ Bartzelona
- ☐ Lagun Aro
- ☐ Zalgiris Kaunas
- ☐ Maccabi

10 Noiz inauguratu zen Azpeitiko igerileku estalia?

- ☐ 1983an
- ☐ 1985ean
- ☐ 1987an
- ☐ 1990ean

11 Non aurkitzen da Txaribar deituriko enparantzatxoa?

- ☐ Arana auzunean
- ☐ Parroki atzean
- ☐ Santutxo auzunean
- ☐ Sanjuandegi auzunean

12 Akotei-Orkazarre bertsolaria zen. 1914an jaio zen izen berdineko Oñatz auzoko baserrian. Baina zein zen bere izena eta lehen abizena

- ☐ Joan Goikoetxea
- ☐ Joxe Mari Segurola
- ☐ Frantzisko Mari Iturzaeta
- ☐ Joxe Odriozola

13 Noiz ireki zen Azpeitiko Arte eta Diseinu Ikastegia?

- ☐ 1975ean
- ☐ 1978an
- ☐ 1980an
- ☐ 1982an

14 Nork egin da Azpeitiko parrokiak aurrekaldean duen Sebastian donearen irudia?

- ☐ Pedro de Etxeberria
- ☐ Joan de Antxieta
- ☐ Ventura Rodriguez
- ☐ Pedro de Michel

15 Zein da Azpeitian igarotzen den ibai nagusia?

- ☐ Ibai-eder
- ☐ Sistiaga
- ☐ Urola
- ☐ Arauntza

16 Zein kaletan dago kokatuta Basazabal etxea Azpeitian?

- ☐ Enparan
- ☐ Eliz-kalea
- ☐ Goiko-kalea
- ☐ Santiago

17 Mojen komentuak bat baino gehiago daude Azpeitian. Baina, zein da zaharrena?

- ☐ Olatz
- ☐ Esklabak
- ☐ Sierbak
- ☐ Frantziskanak

18 Azpeitio herriak izan du garaile bat Euskal Herriko Bertso Txapelketan. Nor?

- ☐ Xabier Euzkitze
- ☐ Imanol Lazkano
- ☐ Joxe Agirre
- ☐ Sebastian Lizaso

19 Etxebizitza auzune batetik oso hurbil dago Ule edo Uhule baserria. Zein auzunetik?

- ☐ Juan XXIII
- ☐ Garmendia
- ☐ Agirre
- ☐ Salbea

20 Esango al diguzu zer adokazioko eliza den Oñatz auzokoa?

- ☐ San Pedro
- ☐ San Inazio
- ☐ Santiago
- ☐ San Joan

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da martxoaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.



Hiru hirigintza proiektu berri jarriko dira abian

Udalak 1.530.474 euro inguruko laguntza eskatu du lanak egiteko.



enplegua sustatu eta Toki Administrazioa irauteko helburua duen diru laguntza jasotzeko, Madrilgo Gobernuari hiru proiektu aurkeztea onartu zuen Azpeitiko

Udalak urtarriaren 28ko Udalbatzan. Guztira, 1.530.474 euro inguruko laguntza izango da eta herriko hiru gune desberdinetan inbertituko da; igerileku estali gabeen, Alde Zaharreko

Done Jakue kalean eta erdiguneko Jose Artetxe kalean. Madrilgo Gobernuaren diru laguntza jasotzeko baldintzak jarraituz, lan guztiak 2010 urtean hasi eta bukatu beharko dira.



Estali gabeko igerilekua.

EGOKITZAPEN ETA HOBEKUNTZA LANAK ESTALI GABEKO IGERILEKUAN.

Proiektu honen bidez, kanpoko igerilekuko zati bat estali, isolatu eta moldatu nahi da. Barruko igerilekua txiki edo motz gelditu da erabiltzaileentzat eta horregatik, beharrezkoa ikusten da kanpokoaren zati bat egokitzea. Modu honetan, gaur egun dauden 6 kaleetatik, 10 kale izatera igaroko da, guztiak arauzko tamainadunak eta neguan eta udaran erabil ahal izango direnak. Erabiltzaileen beharrak erantzunda geldituko direla uste da.

Proiektuaren aurrekontua 601.319 euro ingurukoa da eta 5 hilabeteko epea egongo da egiteko.



Done Jakue kalea.

2. DONE JAKUE KALEKO HORNIKETA ETA SANEAMENDU SAREEN HOBETUNTZA

Azpeitiko Alde Zaharraren baitan kokatzen den Done Jakue kalean dauden horniketa eta saneamendu sareen hobekuntza egitea aurreikusten da, Erdi, Enparan eta Eliz kaleetako sareetara parekatuz. Era berean, euri eta ur zikinen sareak bananduko dira, estolderia hobetuz, eta hondakin urak garbitu eta berrerabiliko dira. Proiektuaren aurrekontua 599.372 euro ingurukoa da eta lanak egiteko epea, berriz, 5 hilabetekoa.



Jose Artetxe kalea.

3. MUGIKORTASUN ETA BIDEKO SEGURTASUNA HOBETZEKO LANAK JOSE ARTETXE KALEAN

Azpeitiko Udalak 2005 urtetik abian duen Mugikortasun Iraunkorraren Proiektuaren baitan, Jose Artetxe kalea oinezkoentzat lehenetsi nahi da. Gehien erabiltzen den kaleetako bat izanik (bertan daude anbulatorioa, autobus geltokiak, Betharram ikastetxea, saltokiak eta garajeetarako sarrerak), dauden arazoei irtenbideak emateko lan desberdinak egingo dira.

- Autobus geltoki berria egingo da anbulatorio aurrean, zirkulaziotik kanpo gera dadin. Honela, oinezkoen segurtasuna bermatu eta auto-ilarak ekidingo dira.
- Gaur egun autobus geltokiak hartzen duen zebra-bidea kendu eta oinezkoen bi pasabide egingo dira.
- Espaloiak zabalduko dira oinezkoen mugimendua errazteko. Honek, aparkalekuen berregituraketa ekarriko du.

Proiektu honen inbertsioa 329.783 eurokoa izango da eta 4 hilabeteko epea izango du.

Ihazko proiektuak amaituta

Hobetutako lau gunek herriarrentzat erabilgarri daude dagoeneko.

azpeitiko Udalak 2.487.000 euroko diru laguntza jaso zuen 2009an Espainiako Gobernuaren eskutik lau hirigintza proiektu egiteko. Lau

proiektuak aukeratzeko orduan, herriarrendandik jasotako eskaerak eta herriko gune desberdinak izatea hartu zen kontutan eta honela, udaletxe atzeko jo-

lastokia, Urrestillako eskoletako lokalak, Garmendipe eta Sanjuandegi auzoak eta San Martin egoitza izan ziren hobekuntzak egiteko aukeratu ziren guneak.



ESTALITAKO JOLASTOKIA

600 metro karratuko jolastoki estalia egin da Izarraitz pilotalekuaren eta San Agustin artean dagoen plazan. Kristalezko estalpean haurrentzat jolas desberdinak ezarri dira, era berean, umeekin joaten diren helduekin pentsatuta, esertzeko bankuak eta komun bat ere jarri dira bertan.

Proiektu honek **900.000 euroko** aurrekontua izan zuen.



URRESTILLAKO ESKOLETAKO LOKALEN EGOKITZEA

Bi lokal egokitu dira Urrestillako instalazio hauetan, batetik, lehengo haur eskola zen eta bestetik, hauteskundeetarako erabiltzen den gelaren ondoan dagoen gunea. Gela bat Urrestillako haur eskola berria izango dena egiteko aprobetxatu da eta bestea, berriz, aisialdirako gune bezala erabiliko ahal izango dute urrestildarrek.

Egokitzapen lan hauek **277.000 euroko** aurrekontua izan zuten.



GARMENDI ETA SANJUANDEGIKO GUNEEN URBANIZAZIOA

Garmendi eta Sanjuandegiko gune batzuetan errepideak eta espaloiak berritu dira eta autoentzat aparkaleku berriak egin dira. Era berean, Barrenetxan biribilgune txiki bat egin da. Bi auzoetan zeuden premia eta beharrei erantzuna eman zaie modu honetan.

Urbanizazio lan hauek egiteko **1.183.000 euroko** laguntza izan zuen Udalak.



SAN MARTIN EGOITZAKO LORATEGIAREN EGOKITZAPENA

Adinekoen egoitza zaharkituta zegoen lorategian plazatxo bat egin da, zuhaitz eta berdeguneekin. Egoiliarrek ezin zuten behar bezala erabili, irisgarritasun baldintza egokiak ez baitzituen betetzen. Orain, aldaketarekin, egoiliar guztiek erabili dezakete.

Lorategia egokitzeko lanek **127.000 euroko** aurrekontua izan zuten.

6.000 euroko diru laguntza Haitira



Euskadiko Udalen Erakundearen (EUEDEL) bidez zuzendu du laguntza Gizarte Zerbitzuak sailak

Urtearrilaren 12an izandako lurrikarak bortizki astindu zuen Haiti. Hildakoak 150.000 baino gehiago izan dira eta zaurituak, berriz, 200.000 inguru. Era berean, etxerik gabe gelditu diren pertsonak milioi bat izan daitezkeela uste da eta herrialdea berreraikitze lanek hamar urte iraungo dutela aurreikusi dute adituek. Gertaera ikusita, Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak 6.000 euroko diru laguntza ematea erabaki du Haitiko egoera hobetzeko helburuarekin. "Haitin gertatutakoa ondo baloratu ondoren, 6.000 euroko laguntza ematea adostu da, gertaera oso larria izan baita", agertu dute Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak. Larrialdirako emandako diru laguntza Euskadiko Udalen Erakundearen (EUEDEL) bidez zuzendu du Azpeitiko udaletxeak, laguntza ondo bideratuko dela ziurtatzeko. Izan ere, elkarteak Larrialdietarako Laguntza Fonda sortu zuen lurrikarak egindako hondamendia arintzeko asmoz.

Etxebeltz-Izarrako errotonda egiten hasi dira



Oinezkoentzat itxi den espaloi zatia martxoan zabaltzea aurreikusten du Udalak

Etxebeltz-Izarra eta Olatz auzoaren artean kokatzen den eremuko errotondako lanak hasi dira dagoeneko. Obra honi esker, bi gunetarako sarbidea erraztu nahi da. Lanak direla-eta, oinezkoek ezin dute Loiola hotela aurkitzen den espaloi aldea erabili, hain zuzen ere, Esklaba aurretik hasi eta Loiolara bitarteko zatia.

Modu honetan, oinezkoek bi aukera dituzte Loiolara joateko. Batetik, bide zaharretik joatea, hau da, Ingurugiro Museoaren bidetik, eta bestetik, Esklaba aurrean bidea gurutzatu eta Jesus eta Maria eliza aldeko espaloitik joan. Hala ere, Hotel Loiolara joan behar dutenentzat sarrera edo pasagunea utzi dela esan dute arduradunek. Martxoan espaloia berriro zabaltzea espero du Udalak.

Bestalde, Justizia Jauregi aurrean aparkaleku plazak ateratzen hasi dira. Honela, Justizia Jauregiaren ondoan (Urbartekoak eta plaza barrukoak) dauden aparkalekuak kenduko dira, guztira 17 plaza, eta Eroski aurrean eta Errotaundi okindegitik Justizia Jauregira bitartean 18 plaza sortuko dira.

Azpeitiaren historiaren hitzaldiak, arrakastatsuak



Otsailaren 20an herriko agiri zaharren erakusketa inauguratuko da udaletxeko behe solairuan

azpeitiko Herri Gutunak 700 urte betetzen ditu eta Udalak antolatutako ekitaldi sorta abian jarri da dagoeneko. Urtarilean egindako aurkezpenaren ondoren, herriko historia azaltzeko hitzaldiak iritsi ziren eta herritarrek harrera beroa eskaini zieten. Sindikatu Zaharrean izandako bi hitzorduetan jende ugari bildu zen, jakin eta ezagutzeko gogoz, “giro ederra eta berezia sortu zen”, agertu dute arduradunek. Alvaro Arrizabalaga, Maria Jose Iriarte, Jose Javier Lopez, Jose Luis Orella eta Luis Maria Martinez izan ziren bi ekitaldietako hizlariak eta denen “maila ona nabarmendu zuten bertaratu ziren herritarrek. Are gehiago, honelako ekintza gehiago antolatzeko eskaera luzatu zioten Udalari”. Hasierako hitzaldiak eta gero, otsailaren 20a izango da Herri Gutunaren urteurren data berezia. Egun horretan Meza Nagusi berezia egingo da 11.00etan eta bestetik, herriko agiri zaharren erakusketaren inaugurazioa izango da. Erakusketa udaletxeko behe solairuan zabalduko da eta astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da, larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta igandetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Ekitaldi irekiak izango dira eta Udalak bertan parte hartzera gonbidatu nahi ditu herritarrek.

Kaldereroek ‘Matxote’ omendu zuten



Eginiko lana eta izandako presentzia eskertu nahi izan diote

Urteroko ohiturari jarraituz, Hungariako Kaldereroak inauteriak iragarritz iritsi ziren Azpeitiko kaleetara otsailaren 6an. Herriko hainbat haur, gazte eta helduk, Juan de Antxieta musika eskolak eta musika bandak hartu zuten parte kalejiran eta guztiak zuzentzen, Ignacio Regil *Matxote* aritu zen. Urte batzuk daramatza festa berezi honetan parte hartzen eta denbora honetan zehar “Kaldereroen alde eginiko lana eta izandako presentzia eskertzeko”, Udal Festa Batzordeak omenaldi beroa eskaini zion *Matxoteri*. Alde Zaharretik kalejira egin ondoren, udaletxeko arkupetan bildu ziren partaide guztiak eta Jabier Altuna zinegotziak Kaldereroen kapa eta kapela jarri eta oroigarria eman zizkion omenduari. Honek esker onez eta pozik jaso zuen omenaldia. Inauterien iragarle den festa bereziaren balorazioa positiboa izan da; “egin zuen eguraldia ikusita, dena nahiko ondo joan zen”, azaldu du Altunak.

Urola Erdia, kalitatezko lekua

Azpeitiko lau eragilek Kalitate Turistikorako ziurtagiria lortu dute



“ziurtagiri hauekin jorratu diren gaiak; lehiakortasuna, kalitatea eta kualifikazioa, etorkizuneko oinarriak izango dira”

“Ziurtagiri hauek aurrerapauso garrantzitsuak ematen ari direla bailarako turismoan adierazten dute. Lana ondo egingen ari dira, baina etengabeko lana eta hobekuntza prozesua dela jakin behar dute eragileek. Egunez egun, gure herriaren etorkizuna lantzen da eta ziurtagiri hauekin jorratu diren gaiak; lehiakortasuna, kalitatea eta kualifikazioa, etorkizuneko oinarriak izango dira. Zorionak!”, adierazi zuen Julian Eizmendik.

Urola bailarako 13 eragilek Kalitate Turistikorako ziurtagiria eskuratu dute, hauen artean, Azpeitiko Kiruri eta Jai-Alai jatetxeak, Larrañaga hotela eta Burnibidearen Euskal Museoa aurkitzen direlarik. Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak Iraurgi Lantzen agentziaren laguntzarekin eta Euskalit fundazioaren eta Basquetour agentziaren bidez kudeatzen diren errekonozimendu hauek lehenbizikoz banatu ziren bailaran urtarilaren 27an Azkoitiko Intsausti jauregian egindako ekitaldian eta bertan hartu zuten parte, besteak beste, Pilar Zorrilla Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuordeak, Julian Eizmendi Iraurgi Lantzen Garapen Agentziako lehendakariak, Asier Aranbarri Azkoitiko alkateak eta bailarako udaletako eta sektoreko ordezkariak.

Bailarako 13 eragilek hartu dute parte guztira eta Turismo eta Industria Idazkaritzak homologatutako ziurtagiri hauek lortzeko jarraitutako prozedurari dagokionez, beraien egunerokoan burutzen diren ia betebeharrak guztietan egiteko modu eta prozedura berezi batzuk ezarri

zaizkie. Prozedura hauek, eskuliburu batean jasota daude eta gai hauetan aditu diren erakundeek gainbegiratu dituzte.

“Q-aren bide luzearen aurreneko zatia betetzen laguntzen duelako”

“Ezarpen honen ondorioak hobekuntzari loturikoak dira, hau da, kudeaketa orokorrean hobekuntza eta lanen erraztea eta bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuan hobekuntza. Prozedura guzti hauek, bai eragile bakoitzak zein bezeroak hobekuntzak sumatzeko diseinaturik daude, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatean berme bat edukitzeko. Era berean, Q ziurtagiria lortu nahi duten eragile guztientzat entrenamendu ona da, kalitateko prozeduren ezarpenaren atzean dagoen filosofia barneratzen delako batik bat, eta Q-aren bide luzearen aurreneko zatia betetzen laguntzen duelako”, agertu zuen Iraurgi Lantzeneko Turismo saileko teknikaria den Jesus M. Mujikak.

Honela, etorkizunari begira, emango diren pausoak definitu dituzte ordezkariak. Kalitatearen konpromisoa lau urteko ziklo bat da, bailarako eragileek lehen fasea amaitu dute eta bigarren garaia igaroko dira, “hau da, lehen urtean ezarritako eta martxan jarritako prozedurak birziklatu eta beste berri batzuk ezarri beharko dituzte. Era berean, lehen ziklorako talde berri bat osatzea da gure asmoa, horien artean Azpeitiko eragileak barne direlarik noski. Ondorioz, Iraurgi Lantzen-en asmoa prozesu guztian orokorrean bi talde edukitzea da, eta bi taldetan Azpeitiko eragileen ordezkari bat edukitzea”, gaineratu zuen Mujikak.

Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuorde Zorrillak eragileek orain arte egindako esfortzua zoriondu nahi izan zuen eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik izango duten laguntza nabarmendu nahi izan zuen: “Urola Erdia bailara kalitatezko lekua izateko bidean jarri da eta helburua lortzeko bidean, Eusko Jaurlaritzaren laguntza osoa izango duzue”, esan zuen.

Hileta zibilak egiteko araudiari hasierako onarpena eman dio Udalak



Etxebeltz-Izarra



Ekitaldiak Betharram aretoan edo Enparan Dorretxean egin ahal izango dira

erlijiotik kanpo gelditzen diren hiletak egiteko Udal-agintarauari hasierako onarpena eman dio Udalak. Azpeitian hildakoen agurrak edo omenaldi zibilak egiteko araudiaren helburu nagusia Udalaren baimena eta lokalaren erabilera arautzea da. Hasiera batean, Azpeitian jaio edo erroladatutako pertsonei zuzenduta dago, nahiz eta salbuespenak onar daitezkeen.

Betharram eraikineko behe solairua (gaur egun zinea izaten den tokian) erabiliko da honelako ekitaldientzat eta beste edozein ekintzarekin okupatuta badago, Enparan Dorretxera igaroko

dira. Astelehenetik igandera bitartean egin ahal izango dira, astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta igandeetan, berriz, 10:00etatik 12:00etara. Kasu guztietan, ordea, ekitaldiak ez du 45 minutu baino gehiago iraungo eta interesdunak arduratuko dira Udalak utzitako lokala apaintzeaz eta zerbitzu osagarriez.

Leku hauetan egiten diren ekitaldietan ospakizuna ezingo da gorpua bertan dela egin, errauts-kutxatilaren presentzia, ordea, baimenduta egongo da. Bestalde, tasarik ez dela ordaindu beharrik izango nabarmendu du Udalak.

Udalaren eta "Izarra" 5. H.I.E.ko sustatzaileen artean izandako hainbat elkarrizketaren ondoren, erabaki da eremu horretarako aurreikusitako urbanizazio eta eraikitze lanak egiten jarraitzea. 2010eko martxoaren 31ean aurreikusi da Babes Ofizialeko Etxebizitzaren esleipendunekin kontratuak gauzatzeko data moduan eta, eta etxe horiek, beti ere orain arteko prezio eta baldintzetan, 2011ko apirilaren 30erako entregatuko direla aurreikusi da, R5 partzelako etxebizitzak izan ezik, horientzako epea hiru hilabete gehiago luzatuko baita. Udalak bestalde, obrak exekutatzeke etapakako plana martxan jarri du, eta horiek betetzen diren heinean, Udalak bizigarritasun lizentziak emango ditu.

era berean, Udalbatzak Azpeitiko Agenda 21eko Berrikuspen dokumentuari hasierako onarpena eman dio. Azpeitia 2000. urtean hasi zen Agenda 21aren inguruan lanean, eta lehen emaitza 2003an iritsi zen, iraunkortasunaren bidean Azpeitian aurrera eraman beharreko ekintza desberdinak jasotzen zituen Azpeitiko Agenda 21eko Ekintza-Plana dokumentua onartu baitzen.

Handik bost urtera, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2007ko Ekintza-Planen Ezarpen mailaren ebaluazioaren arabera, Azpeitian Ekintza-Planaren exekuzio-maila orokorra %38koa zen eta onartu ziren ekintzen

%33 oraindik hastear zeuden. Honek, Ekintza-Planaren inguruko hausnarke-ta eta berrikusketa bat burutu beharra erakutsi zuen. Horretarako, IHOBK 2008an martxan jarri zuen Auzolan 21 programaz baliatu da Azpeitiko Udala.

Ekintza-Plan berri hau diseinatzeko, prozesuaren ikuspuntua definitu da, ondoren beharrezko oinarritzko informazioa bildu da eta Ekintza-Plana diseinatzeko beharrezko Sintesi-Diagnostikoa landu da. Dokumentu berriak 2020rako ikuspegia hartzen du eta ingurumenarekiko errespetutsuago den Azpeitia bat eraikitzea bilatzen du.

OTSAILA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28



13, larunbata

DVD EMANALDIA

Shorts

17:00etan

Lekua: Betharram Aretoa

14, igandea

JAI INAUTERIA

Txikiteo elegante eguna

Udal Musika Banda diana eta sokamuturra

IÑAUTERIKO XXI. ESKOLARTEKO KROSA

Lekua: Plaza Nagusian

BERTO ASTEA - ERNIARRAITZ 10 URTE

Kantariak: Beñat Lizaso eta Leire Ostolaza

Soinujoleak: Izer eta Alabier

DVD EMANALDIA

Shorts

17:00etan

Lekua: Betharram Aretoa

15, astelehena

INAUTERIA

Udal Musika Banda zezenaren irteera eta pasakallea

16, asteartea

INAUTERIA

Udal Musika Banda diana eta goizean sokamuturra, arratsaldean sokamuturra

19, ostirala

BERTO ASTEA - ERNIARRAITZ 10 URTE

1. Kanporaketa saioa

22:00etan

Lekua: Betharram Aretoa

20, larunbata

Azpeitia 1310-2010 - 700 urteurrena

700 urtemuga eguna

11:00etan meza nagusia

12:30etan Agiri Zaharren

erakusketa-inaugurazioa

13:00etan luntxa

25, osteguna

ZINE KLUBA- Zine Ziklo Palestinarra

21:30ean

Lekua: Betharram Aretoa

26, ostirala

ZINE KLUBA- Zine Ziklo Palestinarra

21:30ean

Lekua: Betharram Aretoa

27, larunbata

Ikasberri k.e. XII. Krosa

Federatu maila. Eskolarteko krosa

Tokia: Goenako kanpa

Hasera: 10:15etan

DVD EMANALDIA

Dance Movie

17:00etan

Lekua: Betharram Aretoa

SANTI LAZKANOREN 25. URTEURRENA:

Hitzaldia (Txirrindularitza)

18:30etan (tokia finkatu gabe)

URREZKO AIZKOLARIEN BINAKAKO

TXAPELKETA

Tokia: Izarraitz frontoia

Ordua: 19:00etan

28, igandea

APUSTU MISTOA

AIZKORA-KORRIKA-HARRIJASOTZEN

Joseba Otaegi- Alex Txikon

12:00etan

Lekua: Zezen Plazan

SANTI LAZKANOREN 25. URTEURRENA:

Zikloturista-irteera, Santi-Lazkanoren

argazki-erakusketa eta kadete eta jubenil

taldeen aurkezpena (udalaren azpian).

Ondoren, hamaiketako bertaratzen diren-
entzatzat

DVD EMANALDIA

Dance Movie

17:00etan

Lekua: Betharram Aretoa

botikaxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74

Otsailaren 3, 9, 12, 15, 21 eta 25ean.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2

Tel.: 943 81 13 50

Otsailaren 1, 6, 7, 18 eta 20an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49

Otsailaren 2, 8, 13, 14, 19 eta 24an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74

Otsailaren 4, 10, 16, 22, 27 eta 28an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58

Otsailaren 5, 11, 17, 23 eta 26an.

